

Iker Goenaga, gaur8 aldizkarian honoko galderari erantzunez: Zure burua esperimentatzailatzat daukazu? “Zaila egiten zait erantzutea. Ez dut ezer pentsatzen. Intuizioak naraman tokira noa. Ez dut pentsatzen hau horrela eginez zerbait puskatzen ari naiz... askoz inkontzienteagoa da. Hori bai, nik sortzen dudan hori sortzen ari naizenaren jakitun banaiz. Nik tradizioa jaso dut, baina oso zaila egiten zait hori errepikatzea. Jende askok egiten du eta oso ondo dago; filosofia bat, harmonizatzeko modu bat... Ez naiz horretan asko saiatu baina hasi naizenetan etsi egin dut. Beti pentsatzen dut aurretik eginda dagoena askoz hobea dela. Zertarako saiatu hori egiten? Askoz erosoago sentitzen naiz zerbait berria deskubrituz: harmonia, egitura...”

(gaur8, 2009-08-07)

GOSE, JAPONIAN

Arrasateko taldeak bira egin du Japonian beren hirugarren lana aurkezteko. Disko berria kaleratu bezain laster, japoniarrak izan dira Gosereren kantu berriak zuzenean ezagutzeko aukera izan duten ia aurrenekoak. Urriaren 30etik azaroaren 3ra bitarte bost kontzertu eman dituzte Japonian. Asiatik bueltan, Euskal Herriko agertokietara ekarriko dituzte hirugarren laneko kantuak: Donostiara, Bilbora eta Iruñera, besteak beste. Katalunian eta Galizian ere arituko dira lan berria aurkezten.

HAUSPO KONTARI

Francisco Bernaola Aldaiturriaga (Karakol eta Maurizia-ren semea): “Herrietan desafioak egiten zituzten dantzan eta denetan Karakol nahi izaten zuten jotzen. Orduan denboran ez zen egon inor holan jotzen zuenik. Santa Luzian hala esaten zuten “pero ¿cuándo se cansará este Karakol de tocar jotas?” Pasodobleren bat ere jotzen zuen, baina bere egitekoa ez zen izan fandangoa, bera jota jotzen izan zen artista. Akordatzan naiz, Abadiñora San Blasetan nola etorri zen Marcelino Larrinaga, soinuak egiten zituena eta aitak nola jotzen zuen harrituta, urre zurizko ogerlekoa eman zion... ... eta ama berriz, panderaoagaz zen ezaguna. Nobio egin ziren eta elkarrekin jarraitu zuten jotzen. Ni mutikotan, beti joaten nintzen haiegaz, hona joan eta hara joan... haiek jotzen eta ni lo. Badakizu, jo eta goizaldean etxera. Makina bat bider lo egin dut han gainetan jarrita!”

TRIKITI HOTSAK, EH SONA JAIALDIAN

Bartzelonako Euskal-etxeak hamabigarren urtez antolatu du EH Sona euskal musika jaialdia. Udazkeneroko gisan, hainbat euskal musikari entzuteko aukera izango da Bartzelonan; tartean, hainbat trikitilari. Patxi eta Konpainia taldeak eta Iñaki Plaza eta Ion Garmendiak osatutako bikoteak eskaini dituzte jada beren emanaldiak. Azaroaren 21ean berriz, Korrontzi taldearen txanda izango da, urteroko triki-poteoaren ondotik.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen Boletina

ALTZA PORRU!

2009ko azaroa / 35.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

TEKNOLOGIA BERRIAK ARDATZ, VIII. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIAN

Munduko eta Euskal Herriko soinu joleak elkarrekin ikusteko aukera izango da aurten ere VIII. Nazioarteko Trikitixa Jaialdian: kanpokoen jotzeko molde ezberdinak ezagutu eta Euskal Herriko soinu-joleen artetik, hainbat proposamen berri entzuteko modua izango da.

Aurten, garaian-garaiko teknologia berriek gure soinu-joleengan izan duten eragina islatuko du Jaialdiak.

KANPOKO GONBIDATUAK

Italiatik, Riccardo Tesi: Konpositore, jole, bilatzaile... nortasun anitza duen akordeoi diatoniko jolea da. Musika etnikoaren aitzindaria izan da bere herrian. Hainbat proiekturen artean, John Kirkpatrick, Marc Perrone eta Kepa Junkerarekin batera *Trans Europe Diatonique* gauzatu zuen.



Québec-etik, Raynald Ouellet:

Québec-eko musika mundura hedatzen aurrenekoetakoa izan zen Éritage taldean egin zituen lehen urratsak 70eko hamarkadan. Tresnen fabrikazioan aditu, *Carrefour mondial de l'acordeon* sortu zuenetik, bertako festibala eta museoa zuzentzen ditu.

Okzitaniatik, Joan Francés Tisner eta Marc Casanet: Armonia, konposizioa, koroen zuzendaritza eta elektro-akustika ikasitakoa, Europako musika tradizionalak txunditu zuen Tisner. Gaskoinako dantza errepertorioa ekarriko du gurera, *Verd e Blu* taldean kide duen Marc Casanet soinu jolearekin batera.

EUSKAL HERRITIK

Laja eta Poxpi: Iñaki Garmendia “Laja” pandero laguntzailerik gabe dator. Kruz Mari Alberdi “Poxpi”-ren saxofoiarekin batera entzungo dugu Jaialdian. Eta bien laguntzaile, *kajarritmosa*: trikitilariak erritmoa indartzeko erabili izan duten aurreneko tresna elektronikoa.

Bunpada Sound: Asier Ercilla soinu joleak, Endika “Lahainek” eta David Nanclares-ek osatzen duten hirukote berritzailea da. Rock edota rapetik abiatuta, musika sustrai ezberdinen elkargune izan nahi du proiektu honek.

Herrikojak: Carles Belda, Jon Lonbera, Javi P3Z eta Oriol-ek osatutako taldeak, ukitu berritzailea emango die kantu herrikoiei.

taldetik sortutako proiektu berrian, Xabi Solano eta Jon Mari Beasainen soinu eta pandero hotsak izango dira, DJ Zigorren ukitu bereziarekin. Abesti berriak molde zaharrean jorratuko dituzte hainbat trikitilari mitikoen istorioetan oinarritutako hitzekin.



*Donostiko jaialdirako sarrerak aurrez erosteko: Kutxak internet bidez duen zerbitzuan edo Donostia Kulturaren sareko edozein antzokitan.

*Getxoko jaialdiaren ostean, **triki-sessiona** egingo da Areetako **Glass** tabernan.

AFARIA GOIEGIN

Donostiko jaialdiaren ondoren afaria izango da Lasarteko Goiegi jatetxean. Afariak 20 euro balio du, 15 euro bazkideentzat. Bertara joateko tokia gorde nahi duenak, honoko bideetatik egin dezake **azaroaren 18a aurretik**:

- 943 83 28 28 edo 657 79 42 17 telefono zenbakietara deituta
- trikitixa@trikitixa.net helbidera idatzita

Afari menua:

- Bakailao brandada
- Espinaka eta barrigorritz betetako hojaldrea
- Txekor masailak saltsan
- Kafe eta txokolate budina
- Etxeko edariak eta kafea

VIII. NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

NON:

Getxon, Areetako Andres Isasi Musika eskolan

NOIZ:

azaroaren 20an, ostiralez, 20:00tan

NON:

Donostiako Victoria Eugenia Antzokian

NOIZ:

azaroaren 21ean, larunbatez, 19:00tan



DURANGOKO AZOKA

Euskal Herriko eta Bizkaiko Trikitixa Elkarateek postua partekatuko dute aurten ere Durangoko 44. Liburu eta Disko Azokan. Euskal kulturaren hitzordu nagusia den azokan izango dira bi elkarateak datorren abenduaren 4tik 8ra bitarte.

Aurten ere hainbat produktu topatuko ditu trikitizaleak Durangon, baita honoko nobedadeak ere.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarateak argitaratuta:

• Arrakasta arrastaka: Triki-poparen doinu arrakastatsuenak biltzen dituen partitura-liburua eta diskoa. Irakaskuntzara begira sortutako materiala da. Hamabi talde eta beste horrenbeste kantu biltzen ditu Elkar diskoetxearekin batera argitaratutako liburu-diskoak.


• Faborez 03: Faborez disko-bildumako hirugarren alea ere aurtengo nobedadeen artean dugu. Julie eta Thierry, Koldo eta Esti, Mundiñano anaiak, eta Lurdes eta Aitor Alkorta jo dute diskoan. Jotzeko molde eta kantuera ezberdinak biltzen dituen lana da.

• 2010eko egutegia: Diseinu berriarekin dator heldu den urteko egutegia: argazki zaharrak, itxura berriarekin uztartuta. Mahai gaineko egutegia da, hilabete bakoitzari orrialde eta argazki bana dagozkiona.

Elkarateak argitaratuta:

• Aupa Maurizia! Maurizia Aldeiturriaga panderojolearen biografia idatzi dute Xabi Paya eta Fredi Paia; trikitixaren historiaren bibliografia osatzeko bidean, beste urrats bat. Emakume kementsu honek panderoarekin eta, orohar, trikitixarekin zuen harremana bildu dute, dokumentazio-lan handia eta elkarriketa ugari eginda.

• Jan osteko menua: Trikitixaz dastatzeko abesti sorta. Bizkaian, afari eta erromerietan, trikitiarekin lagunduta jo ohi diren piezen partitura-bilduma da. Ruben Isasi trikitilariak bildu eta transkribatu ditu piezak. Ikasleei zuzendutako partitura-liburua da Bizkaiko Trikitixa Elkarateak kaleratuko duena.



FASIOREN MENDEA, IGORREN.

Bonifazio Arandia “Fasio”-ren jaiotzaren mendeurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu Igorreko Udalak. Irailaren 18tik 26ra erakusketa, dantza tailerra, mahai-ingurua, erromeria eta kontzertu-ikuskitzuna bildu zituen **aste kulturala** ospatu zuten.

Horiez guztiez gain, Fasioren bizitza eta Arratiako trikitixaren ingurukoak bilduko dituen **liburu-DVDa** prestatzen ari dira urtea bukatzerako.

I. TRIKITIXA JAIALDIA OÑATIN



Lizargarate Trikitizale Elkarateak antolatuta, joan den urriaren 24an ospatu zen Oñatiko I. Trikitixa Jaialdia eta ez nolanahiko kartelarekin: Maixa, Ines eta Izer, Iker Allur eta Narbaiza, Oñatiko Trikiti Eskola, Miren eta Agurtzane, Laja eta Landakanda, eta Epelde eta Iturbide aritu ziren jotzen. Azken bi **trikiti-bikote beterano hauei omenaldia** ere egin zieten. Beren bertso bat idatzita zuen pandero bana oparitu zieten lau omenduei.

250 pertsona inguru elkartu ziren eta antolatzaileak gustura dira “aurrenekoz gisa honetako jaialdi bat antolatu eta aurreikuspenak bete” dituztela-eta. Datorren urtean “**bigarren edizioa antolatzeko gogoz**” dira.

Aurten sortu da **Lizargarate Trikitizale Elkaratea**, Oñatin bertan zein Deba-Garaian trikitizaletasuna bultzatzeko xedez. Hilaren lehenengo igandearekin Lizargaraten trikitia jotzeko elkartzeaz gain, ikastaro, afari eta erromeriak antolatu dituzte dagoeneko, baita Trikitizale Elkaratearen eguna ere, joan den irailaren 19an. Hamar laguneko taldea zena, hasi da pixkanaka handitzen.



Disko berriak

XABI ABURRUZAGA: DENBORAREN NAUFRAGO

Bizkaiko Trikitixa diskoaren ondoren, berak konposatutako piezekin osatu du Xabi Aburruzagak bere bigarren lana: *Denboraren Naufrago*. Kalejira edota arin-arinetik hasita, beste hainbat moldetako piezak ere sortu ditu Aburruzagak, baita tartean, bi kantu ere. Guztira, hamabi doinuarekin osatu du diskoa.

Pieza instrumental guztiek toki-izenak dituzte eta, barruko liburuxkan, batetik besterako bidaia proposatzen digu Kirmen Uribek idatzitako testuen bidez. Ohiko taldekideekin batera, makina bat laguntzaile izan ditu: besteak beste, Xabier Zeberio, Jesus Aranburu, Urbil Artola eta Oreka TX.



GOSE

Beltzaren eta txuriaren ondotik dator, Gose taldearen hirugarren diskoa. Izenbururik ez du baina, aurrekoetan bezala, azalaren koloreagatik nabarmentzen da lan hau ere: Gosereren disko gorria.

Hamar kantu berri eta ezkutuko hamaikagarren bat bildu ditu Arrasateko taldeak hirugarren disko honetan. Hamar istorio berri dira baina, musikari dagokionez, lehen bi diskoen doinuak gogora dakartzatenak. Doinu anitzak elkartu dituzten arren, esparru elektronikoarekin uztartutako trikiti doinuak ez dira falta disko berrian.



ESNE ZOPAK

Bidean da Esne Beltza taldetik sortutako proiektu berri hau: Esne zopak. Trikitixa du oinarri eta abesti berriak molde zaharrean jorratuko dituzte Laja, Landakanda, Epelde, Iturbide, eta garai bereko beste hainbat trikitilari mitikoen istorioetan oinarritutako hitzekin.

Xabi Solano eta Jon Mari Beasainen soinu eta pandero hotsak izango dira, DJ Zigorren ukitu bereziarekin. Jon Maia, Jon Garmendia eta Iker Zubeldia bertsolarien laguntzaz osatutako lana aurki izango da kalean.



BIZI! GOIERRI HITZ eta DOINU

Hogei urte dira Goierritarra aldizkaria sortu zenetik eta, bost urte, Goierriko Hitz jaio zenetik. Gipuzkoako Goierriko bi komunikabide hauen urteurrenak ospatzeko aitzakipean, diskoa kaleratu dute eskualdeko hainbat trikitilari eta bertsolari elkartuta.

Hamasei kantuz osatutako lanean, trikiti pieza hutsak dira batzuk, bertsolarien hitzekin hornituak besteak. Urriaren 31an Lazkaon ospatutako urteurren festan, diskoan jasotako kantuak zuzenean entzuteko aukera izan zen.

PARTITURAK INTERNET-EN

Trikitixa ikasleen oinarritzko errepertorioko hainbat piezen **partiturak sarean** jarriko ditu aurki Euskal Herriko Trikitixa Elkarateak, **www.trikitixa.net** web atarian. Piezen transkripzio hutsak beharrean, **bi ahotsetan jotzeko** modua egindako moldaketen partiturak dira.

Altzaporruko txoko honetatik, **trikitilariet** egin nahi genizueke, ordenagailuan partiturarik izanez gero, Elkartera bidali eta nahi duen ororentzat eskura jarri ahal izateko.